

Funtsezko baliabideak:

→ Zeintzuk dira gure proiektuak funtziona dezan behar dituzun elementu garrantzitsuenak?

Gure negozioa garatzeko, baliabide hauek beharko genituzke:

- **Baliabide fisikoak:**

Gure enpresan izango genituzkeen baliabide ukigarriak dira; enpresa hori instalatuko litzatekeen instalazioak eta Bilboko erdigunean dagoen bulego fisikoa. Produkzioarako beharrezko makineria guztia, ordenagailuak, prozesadoreak eta mota guztietako altzariak. Txiparen banaketarako beharrezkoa den garraioaz gain.

- **Baliabide intelektualak:**

Baliabide ez-fisikoak dira; gure langileak, lantalde osoa, informatikako arduradunak, osasun arloko profesionalak eta gure marka hobetzen laguntzen diguten gure bezero guztiak.

- **Giza baliabideak:**

Gure enpresan Giza Baliabideen sail bat izango genuke non langileak behar bezala prestatuta dauden lan hori egiteko. Hemen langileen kudeaketa administratiboaz, langileen kontratazioaz, hauen prestakuntzaz eta garapen profesionalaz arduratuko lirateke. Baita laneko arriskuen harremanak eta prebentzioa ere. Analisi bat egingo lukete langileen eraginkortasuna egiaztatzeke.

- **Finantza-baliabideak:**

Hasiera batean, gure finantza-baliabideak gure bazkide eta inbertitzaileetatik etorriko ziren. Negozioa martxan dagoenean, txip-en salmentatik ateratako diru-baliabideei gehituko genieke.